



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2018ko uztailaren 24a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Aizpea Ubegun Manterola, Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Iñigo Arruti Agirre.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ), Gotzon Igoa Agirrezabal zinegotziak (EH Bildu) eta Ana Priede Merchan zinegotziak (PSE-EE-PSOE) adierazi dute ezin zutela etorri eta, beraz, ez dute bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2018ko ekainaren 26ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Udalaren 2017ko aurrekontuaren Kontu Nagusia.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 4/2018 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 5/2018 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2018KO EKAINAREN 26KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2018ko ekainaren 26an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2017KO AURREKONTUAREN KONTU NAGUSIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2017ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako



Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertzeke eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharra idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2018ko ekainaren 11ko GAOn (111. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea eta oharra aurkezteko epea 2018ko ekainaren 12an hasi zen eta uztailaren 3an bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udalaren 2017ko aurrekontuaren Kontu Nagusia, aurrekontu propioak osatzen duena.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 4/2018 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 4/2018 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 95.315 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2018ko uztailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Salsamendi (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Iparragirre (ORAIN) eta Arruti (ORAIN), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu) eta Ubegun (EH Bildu), guztira **HIRU ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2018ko aurrekontuari dagokion 4/2018 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 95.315 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.



c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean eta adierazten du bere talde politikoak ez duela kreditua aldatzeko espedientearen edukiarekin inolako arazorik, oro har; baina honako hau esan nahi duela: kreditu globalaren kapituluari partidaka begiratu behar zaiola eta nabarmentzeko modukoa dela kreditu global horren 44.500 eurotatik 10.000 euro, gutxi gorabehera, gizarte-ongizateko gaietarako direla eta Gizarte Ongizate batzordeak ez duela gai horri buruzko diktamenik eman aldezturik.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 5/2018 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 5/2018 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 176.985 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2018ko uztailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2018ko aurrekontuari dagokion 5/2018 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 176.985 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betetz, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza



b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Gai-zerrendatik kanpo, udalbatzarrak ondoko erabakiak hartu ditu, aldezturik, **AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**], urgentziazkotzat jo ondoren:

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BAJA EMATEA 2/2018 KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI (KONPROMISO-KREDITUA).

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2/2018 espedientea konpromiso-kredituen modalitatean egina dago eta 100.001 euroko zenbatekoa du. Espedienteak bere baitan biltzen dituen 2018ko konpromiso-kreditua, 76.255 eurokoa, eta 2019rako konpromiso-kreditua, 23.746 eurokoa, Udalaren 2018ko aurrekontu propioaren kargura presupuestatu dira osotasunean, eta hori da espedienteari baja ematearen arrazoiak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2018ko uztailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA baja ematea 2/2018 kreditua aldatzeko espedienteari (konpromiso-kreditua), goian azaldutako terminotan.



7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 4/2018 KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KONPROMISO-KREDITUAREN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 4/2018 espedientea konpromiso-kredituen modalitatean egin dago, 525.063 euroko zenbatekoa du eta honako xedea du: Herriko Plaza eta Kaia kalea urbanizatzeko lanak finantzatzea era honetan: 265.968 euroko aurrekontu-partida bat izango da 2018ko udal aurrekontuan eta, bestalde, 259.095 euroko aurrekontu-partida bat, diruzaintzako gerakinaren kargura, 2019ko udal aurrekontuan.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2018ko uztailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 4/2018 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea konpromiso-kredituen modalitatean egin dago eta 525.063 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era). Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

d) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, konpromiso-kredituen espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TXU-TXU TRENA ERABILTZEKO TARIFA DOAN IZATEA 3 URTETIK BEHERAKOENTZAT.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2018ko uztailaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA txu-txu trena erabiltzeko tarifa doan izatea 3 urtetik beherakoentzat.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak faltan bilatzen duela Udalaren tren turistikoaren tarifak jendearen bistan jartzea trenean bertan eta panel informatzaileetan.

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta bi gai azaltzen ditu:

1.- Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko lanen tramitazioa. Gaiak Udalean izan duen ibilbidea aipatzen du:

- 2013ko azaroan adjudikatu ziren Plan Orokorra idazteko lanak.
- 2014an bukatu ziren Plan Orokorraren Aurrerakina idazteko lanak.
- 2015. urtearen hasieran jendaurrean jarri zen dokumentua eta jarduketa urbanistikorako eremu bakoitzari buruzko azalpenak eman ziren.
- Beraz, aurreko agintaldian behar bezala bete ziren kronograman ezarritako epeak.
- Udal-agintaldi honetan, berriz, atzerapenak izan dira Plan Orokorraren tramitazioan eta, ikusitakoak ikusita, bere talde politikoaren ustez, atzerapen horien ardura gaur egungo udal-gobernuarena da.

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren idazketa-lanen tramitazioa mantso doala, baina zenbait aldaketa egin direla bertan, eta, bere ustez, horren ardura gaur egungo udalbatzarra osatzen duten guztiena dela.

2.- 2014an diziplinazko espediente bat hasi zitzaiola udal langile bati eta, espediente hori iraungita geratzen dela. Emeteriok dio ez dela aintzakotzat hartu Gipuzkoako Foru Aldundiko bi langilek bere garaian egin zuten lana, guztiz garantista zen espediente hura osatzeko; eta esaten du egoera salatu eta beren ezinegona adierazi besterik ez



ORIOK OUDALA



zaiela geratzen, eta azpimarratu nahi dutela begi bistakoa dela espediente hori tramitatzeko ez dela izan batere borondate politikorik.

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du txosten bat eskatu diola udal-idazkariari, aipatutako espedientea ahalik eta azkarren itxi ahal izateko.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,